


VAHAN SARKISIAN EUSKALARIA

«Eragin erromaniko handiegia izan du euskal hizkuntzalaritzak: euskaldundu behar da»

Vahan Sarkisian Erevango (Armenia) Unibertsitateko Ikerketa Eusko-Armeniarretako Taldeko burua da. Bere ustez, euskal hizkuntzalaritzak errazegi baztertu zuen Kaukasoko teoria, eragin erromanikoa zela eta. Bi herrien jatorri komuna aldarrikatzen du.

XOUSE SIMAL



EUSKALARITZA

HARREMANAK

Alberto Barandiaran | IRUÑEA

Euskal Herriaren eta Armeniaren arteko lotura kultural eta linguistikoak aztertzearen eta harremanetan gehiago sakontzearen aldeko da Vahan Sarkisian. Egunotan Euskal Herrian dago argitaratu berri duen gramatika aurkeztzen. «Orain oinarriak jartzen ari gara aurrerantzean sustrai komunak hobeto ezagutzeko», dio.

■ **Berrogei artikulua edota liburu inguru argitaratu dira azkenotan Armenian euskarari buruz. Nola uler daiteke interes hori?**

Euskaldunen eta armeniarren artean badira oso kidetasun etnografiko, linguistiko eta mitologiko agerikoak, eta duela hamar urte sortu genuen *Araxes* aldizkariaren bidez zabaltzen da han euskararen eta Euskal Herriaren inguruko interesa. Beharra ere badugu interesa elikatzeke, eta Erevango Unibertsitatean zuzentzen dudana

“ «Euskalaritza lehengaiak pilatzen ari da oraindik, ez dugulako ez euskararen gramatika osoa, ez hiztegi osoa, ez gramatika historikoa»

Ikerketa Eusko-Armeniarretako Taldean, esaterako, euskara dakiten ikasleak behar ditugu, eta, horregatik, unibertsitateak euskara eskainiko du datorren urtetik aurrera. Bidea egin nahi dugu euskara ezagutua izan dadin Armenian.

■ **Interes honen atzean egongo da tradizio bat, ezta?**

Bai, badago aurretik lan handia egin. Adibidez, euskalaritzako iturri askotan badira aztarnak euskaldunen eta armeniarren arteko harremanei buruz, eta berdin gertatzen da hango iturriekin, baina hori guztia ahaztu egin da, gutxietsi. Orain azaleratu nahi dugu, eta bere balio zientifikoa aldarrikatu. Esnatu nahi dugu lo dagoena.

■ **Zer motatako harremanaz ari zara?**

Kulturan, hizkuntzan, antropologian, etnografian badaude harremanak bi herrien artean. Baina dena bildu behar da, eta lan monografikoak egin. Aurtengo kaleratu dut *Euskaldunen jatorria eta Armeniako meseta* izeneko monografia, bi kulturaren arteko harremanei buruz oinarritzako informazioa biltzen duena: iturriak, egileak... Hori bera egin beharko litzateke orain hemen.

■ **Kidetasunak badira hizkuntzan, kulturan... horrek esan nahi du erro beretik datozen bi herriak direla Euskal Herria eta Armenia?** Euskaldunen isolamenduaz eta

“ «Euskalaritzako iturri askotan badira aztarnak euskaldunen eta armeniarren arteko harremanei buruz, baina hori guztia ahaztu egin da, eta gutxietsi»

armenieraren izaera indoeuroparrari buruz orain arteko irizpideak alde bakarreko oinarrien gainean zeuden eraikiak. Euskal Herrian ondorio horietara iritsi zirenek ez zekiten armeniera, eta Armenian berdin gertatu zen. Euskalaritza eta armenologia bereizita garatu ziren, eta horregatik egin dira balorazio okerrak. Esan behar da, hala ere, kultura bereetik datozen bi herri direla.

■ **Erro beretik datozen bi herri badira, esan behar da mundu indoeuropar aurreko bi uharte direla armeniera eta euskara?**

Hizkuntzen taldeen sailkapena berrikusi beharra dago. Esaterako, indoeuropar taldearen

barruan ia ehun hizkuntza tipo daude. Egin behar da sailkapen berria, garaikideagoa. Horrela lortuko genuke, akaso, armeniarren eta euskararen arteko harremana hobeto ulertzea.

■ **Bi herrien arteko ezagutza faltagatik ez ezik, badira beste arrazoi batzuk azal lezaketenak bide honetatik gehiago ibili ez izana?**

Armeniarrentzat duela mende bat oso interesgarria zen kultura indoeuropar horren parte sentitzea, eta ez zuten pentsatu hipotesi hori buru-buruan hartu eta teoria bilakatu baino. Hemen ere izan zen mugimendu bat euskaldunen eta euskararen jatorri ilun, ezezagunaren mitoa bultzatu nahi izan zuena, exotismo horregatik.

■ **Armenian Euskal Herriaren inguruan dagoen interes askozaz ere handiago da Euskal Herrian Armeniaren inguruan dagoena baino.**

Hori normala da. Europan beti zuhurtzia handiz lan egiten da, eta Euskal Herrian euskalariak nahasmendu handi samarra ikusi dute proposamen ezberdinak zirela eta, gero hondarrean baztertu izan direnak. Horregatik, niregana pixkanaka hurbiltzen dira.

■ **Zer iruditzen zaizkizu Euskal Herrian arlo honetan egiten ari diren lanak?**

Lan handia egiten ari da, baina, nire ustez, euskalaritza lehengaiak pilatzen ari da oraindik. Lehen alderantziz egiten zen: ondorioak jakinarazten ziren lehenik, eta gero lehengaiak bilatzen ziren teoria horiek funtsezko. Orain ari dira bide zuzenetik, baina oraindik ez dugu euskararen gramatika osoa, ez dugu hiztegi osoa, ez gramatika historikoa osoa. Hori guztia lortzen denean aurrerapen handia lortuko dugu ikerketetan.

■ **Esan izan duzu orain arteko euskal hizkuntzalaritza hizkuntza erromantikoetan oinarritu dela, eta hori okerra izan dela.**

Hemengo hizkuntzalariak, Mitxelena barne, aurrenik erromantikologoak edo germanologoak izan dira euskalariak baino gehiago, hizkuntza horien bidez egin direlako hizkuntzalari. Eta horregatik eragin erromanikoa, oro har, gehiegizkoa izan da euskal hizkuntzalaritzan. Behar da, beraz, garbitu pixka bat, euskaldundu.